

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ministerioaren INTERCAMBIA topaketetan SKOLAE programa aurkeztu du Hezkuntza Departamentuak

*Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak eta Espainiako emakumeen berdintasunerako Institutuak antolatutako XIX jardunaldia egunotan ari da gauzatzen Madrilan*

Asteartea, 2018.eko azaroak 20

Consuelo Vélaz de Medrano Ureta, Ministerioko Ebaluazio eta Lurralde Kooperaziorako zuzendari orokorrak zabaldu zituen atzokoan jardunaldiak. Ondoren, María José Díaz-Aguado Jalón, Madrileko Complutense unibertsitateko Psikologian katedradunak eta prebentziozko psikologiaren unitateko zuzendari eta berdintasun eta emakumeen aurkako erasoan adituak bere hitzaldia eskaini zuen.

Asteleheneko egitaraua erkidegoek egindako hainbat proiekturen aurkezpenekin osatu zen: Andaluzia, Aragoi, Asturias, Balear Uharteak, Kanariar Uharteak, Cantabria, Gaztela-Mantxa, Gaztela-Leon, Extremadura, Galizia, Madril eta Murziako ordezkariak izan ziren.

Gaurko saioan, Nafarroak parte hartu du, Valentzia, Ceuta eta Melillarekin batera. Pilar Mayo, Hezkuntza departamentuko berdintasun arduradunak hartu du hitza. Bere aurkezpenean Skolaeren helburu orokorrak azaldu ditu, bere lau ikasgaiekin batera: kritika eta erantzukizuna berdintasunik ezaren aurrean; autonomia eta independentzia pertsonala; lidergoa, ahalduntzea eta partaidetza soziala; eta sexualitatea eta tratu onak ematea.